

EUSKAL ARRANTZA ESTRATEGIA

Lau urte bete dira Arrantzaren Plan Estrategikoa 2009-2013 martxan jarri zenetik, eta jada posible da arrantza-jarduerari, sektorea profesionalizatzeari, lan-istripuak murrizteari eta Elikagaien eta Lanaren Segurtasunaren lege-esparrura egokitzeari dagokienez lortutako emaitzak ikustea.

2009an Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Nekazaritza Zuzendaritzak martxan jarri zuen Arrantzaren Plan Estrategikoa, honako helburu hau lortzeko:

“Arrantza-sektoreko pertsonen bizitza eta ingurua hobetzea, eta garapen iraunkorra bultzatzea. Horretarako, kalitatezko produktuak eta zerbitzuak ekoizten dituzten eta balio erantsia duten arrantza-enpresen alde egingo da, gure natur ondarearen erabilera arrazionala eta arduratsua bermatuz, eta kultur ondarea mantenduz”.

Helburu hori lortze aldera, Plana zenbait programaren bidez garatu zen, eta programek ere zenbait jardun-lerro zituzten. Hain zuzen ere, horiek 200 ekintzaren bidez gauzatu dira (% 95 gutxi gorabehera).



Azken urteotako ahalegin gehienek helburua izan da sektoreko hainbat kolektibori prestakuntza ematea, ezagutza handitzeko ikerketa gauzatzeko, arrantza-sektorearen irudia hobetzea eta elikagaien zein lanaren segurtasunaren arau-esparrua garatzea eta egokitzea.

1.- Prestakuntza

Guztira ia 3.000 prestakuntza-ordu eman dira arrantza-sektoreko hainbat talderi, Euskadiko Hezkuntza Sailaren eta Nekazaritza Eskolen (Itsasmendikoi) laguntzarekin.

Arrantza-sektoreko profesionalentzat, prestakuntzaren ardatza honako hauek izan dira: enpresa-antolakuntza eta antolakuntzaren eraginkortasuna (kudeaketa- eta antolaketa-eredu berriak, marketina, merkaturatzea, produktuen errentagarritasuna, etab.), eta elikagaien higiena eta segurtasuna (manipulazio-jarduera egokiak, arrainak maneiatzea, higienari buruzko araudi berria, etab.), lan-arrikuen prebentzioa eta lehenengo mailako sorospenak. Bestalde, berrikuntzarako prestakuntza ere eman da, dibertsifikazio-ekintzak bultzatze aldera.

Arrantza-ikuskaritzako zerbitzuaren ikuskatzaileentzat ikastaroak eta jardunaldiak antolatu dira, kontrola eta ikuskatzeak hobetzeko.

2.- Ikerketa eta Berrikuntza

Urtean ia 4 milioi eurekin, Eusko Jaurlaritzak azterlanak bultzatzen ditu sektorearen bideragarritasuna eta arrantzaren iraunkortasuna ziurtatzen duten neurriak hartzeko. Horretarako, AZTI Tecnalia teknologia-zentrotik euskal flotaren jardueraren, harrapatutako espezie nagusien ezaugarritze biologikoaren, populazioen ezagutzaren eta euskal arrantzaren sektoreko baliabide interesgarriak ebaluatzeko jardueren jarraipena egiten da. Txosten horiek ahalbidetu egiten dute espezieak kontrolatzeko eta berreskuratzeko proiektuak martxan jartzea. Hain zuzen ere, antxoaren kasua izan da hori, eta, horri esker, euskal flotak berriz ere arrantzan hasteko aukera izan du.

Aurrerapausoak

ELIKAGAIEN SEGURTASUNEAN

euskal arrantza

sektorean



Flota berritzeari dagokionez, AZTI Tecnaliak ikerketa-lerro oso bat gauzatzen du, teknologia berriak ezarriz (GPS, SLB, geokopena, itsasontziak kokatzeko sistemak, etab.).

Beste ikerketa-lerro garrantzitsu bat akuikulturarekin dago lotuta. Eusko Jaurlaritzak 6 milioi eurotik gorako inbertsioa egin du bertan, polo urtar traktorea sortzea bultzatzeko, zerbitzu eta azpiegitura partekatuak izango dituen, akuikultura espezializatua eta kalitatezkoa ahalbidetze aldera.

3.- Sektorearen irudia hobetzea

Hala sektoreari nola herritarrei arrantzaren inguruan sortzen den jarduera guztiari buruzko azalpenak, informazioa eta hezkuntza emateko zenbait jarduera egin dira, hala nola, honako hauek:

- Erakusketa ibiltariak euskal portu guztietan eta garai ezberdinetan, arrantzaren mundua gizartera hurbiltzeko.

- Arrantza-azokak. Horietan, tailerrak eta hainbat pertsonaiaren omenaldiak egin dira, eta baliagarri izan dira arrantza-sektoreko errealitatea azaldu eta herritarren artean arrainaren kontsumoa sustatzeko.

- Balio erantsi handiko espezieen markak sortzea (barbarina, krabarroka, lupina, mihi-arraina), produktuen egiaztapena eta horien inguruko azalpen-kanpainak, HAZI korporazioaren eskutik.

- Artisautza-arrantza sustatzea, elementu bereizgarri eta baliagarri gisa.

- Merkaturatze partekatuko estrategiak garatzea eta asoziazionismo tekniko eta ekonomiko babestea.



- Arrantza Sektoreko Emakumeen Espainiako Sarearen Lehenengo Kongresua antolatzea (Kursaal, 2010eko urria). 350 pertsonatik gora bertaratu ziren.

4.- Araudi esparrua sortzea eta garatzea

Arrantza-sektorean eragina duen araudi-esparruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak informazio-kanpainak sortzen ditu maiz; are gehiago, kanpaina indartsuagoak egiten dira arau eta araudietan aldaketak egiten direnean. Era berean, arrantza-ikuskapenak hezkuntza-eta pedagogia-lan garrantzitsua egiten du tartean dauden agente guztiekin batera.

Higieneari eta Elikagaien Segurtasunari buruzko araudiari dagokionez, Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalako kontrol ofizialei buruzko Europako 882/2004 Araudiaren indarraldia hastearekin batera, Arrantza eta Akuikultura Sailak higiene-programak abiarazi zituen 2011n, ateratze-arrantzaren eta akuikulturaren ekoizpenerako. Elikaren (Elikagaien Segurtasuneko Euskal Fundazioa) laguntzarekin garatu dira ikuskatze-lanak egiteko programak eta prozedurak. Gainera, sektoreari programa horien berri emateko dibulgazio-liburuxkak ere egin dira.



Bestalde, hainbat arrantza-toki kontrolatzeko programa zehatzei jarraipena eman zaie, eta beste horrenbeste egin da trazabilitatea eta merkaturatzea kontrolatzeko Planarekin (horren bidez gauzatzen da arrantza-ikuskaritzako zerbitzua).

Lan Arriskuak Ekiditeari dagokionez, Osalanekin (Segurtasunaren eta Laneko Osasunaren Euskal Institutua) eta Portuen Zuzendaritzarekin elkarlanean, arrantza-sektoreko Lan Arriskuak Ekiditeko Sektoreko Plana (Itsaspreven) sortu da. Bertan, arrantza-jarduerari lotutako arrisku-faktoreak identifikatu eta horiek ekiditeko hobekuntzak ezarri dira, instalazioak egokitzeaz gain.

Aurrerapausoak

ELIKAGAIEN SEGURTASUNEAN

euskal arrantza

sektorean



Beste alde batetik, arrantza-sektoreko gaixotasun profesionaleri buruzko azterlana egin da, eta gaixotasun profesionalen katalogora gehitu dira.

EMAITZA AZPIMARRAGARRIAK

Zehaztutako jarduera anitzek, 2000-2013rako EAEko Arrantzako Plan Estrategikoaren exekuzioaren arabera abiarazitakoek, honako emaitza hauek lortu dituzte:

1.- Institutuzio eta erakundeen arteko elkarlana, izan autonomikoak, nazionalak edo nazioartekoak, arrantza-baliabideak kudeatu eta zaintzeko politikak garatzeko.

2.- Arrantzaren Kontsulta Batzordea sortzea (45/2012 Dekretua), arrantza arloko eztabaida-foro gisa. Euskal arrantzaren sektorean aritzen diren gizarte-sektore guztien partaidetza lortu da.

3.- Arrantzaren sektorean lan egiten duten pertsonen ahalduntze-maila handia, hala kudeaketa- eta merkaturatze-ereduei nola elikagaien segurtasunari eta lan-arriskuen prebentzioari dagokienez.

4.- Euskal arrantza-sektorearen profesionalizatzeko bideak: baliabideen kudeaketa eta erabilera eraginkorra modernizatu du, balorazioa, egiaztatpena, merkaturatzea, marketina, komunikazioa eta berritzea uztartu dituen kudeaketaren bidez.



5.- Lan-istripuen kopurua murriztea. Azken 4 urteotako istripuak % 25 murriztu dira, eta horrek bizi-kalitatea hobetzea ekarri du.

6.- Flota, materialak eta baliabideak modernizatzea. Horri esker, segurtasun handiagoa lortu da ontzi eta tripulazioentzat; zehazki, teknologia berriak erabiltzen dituzten sistemak ezarri baitira.

7.- Arrantza-sektoreak egiten duen lana aitortzea, eta irudia hobetzea, sektorearen errealitatea azaldu delako, ikusgarri eginez eta duintasuna emanez arrantzalearen irudiari eta emakumeek Euskal Herriko arrantza-sektorean duten zereginari.

8.- Euskal herritarren artean arrainen kontsumoa sustatzea, azoka, erakusketa, produktuen ziurtagiri, azalpen kanpaina eta abarren bidez.

9.- Arrantza-tokien egoera sakon ezagutzea. Horrek ahalbidetu egiten du zientzia-aholkularitza hobea izatea, kudeaketa-politika onak gauzatzeko eta arrantza-jardueraren bideragarritasuna eta baliabideen iraunkortasuna ziurtatzeko.



10.- Elikagaien Segurtasunari buruzko araudia sortzea eta egokitzea. Horretarako, higiene-programak abiarazi dira ateratze-arrantzan eta akuikulturaren. Bi urtean erroldatutako ontzien eta ustiatuegien % 40 ikuskatu dira, eta atzeman da higiene-araudiaren betetze-maila handia dela.

11.- Arrantza-kontrola eta ikuskapena hobetzea, ikuskatzaileei emaniko prestakuntzaren eta beharrezko baliabideen bidez.

Aurrerapausoak ELIKAGAIEN SEGURTASUNEAN euskal arrantza sektorean



ONDORIOAK ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK


Plan Estrategiko hau egiteko zuzenean edo zeharka lagundu duten eta elkarlanean aritu diren erakunde guztien ahaleginak emaitzak eman ditu, eta profesionalizatzeko maila handia lortu da euskal arrantzaren sektorean. Gainera, flota bera modernizatu egin da. Halaber, bistakoa egin da euskal arrantzaleen eta sektore horretako emakumeen lanaren aitorpena, eta lan-istripuen kopurua murriztu egin da. Horri guztiari esker, sektoreko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea lortu da.

Aholkularitza zientifikoari eta teknikoari esker, arrantza-kudeaketa iraunkorragoa izatea ahalbidetu da, nahiz eta oraindik ere ingurumenarekin arduratsuagoa den arrantza lortzeko bidea luzea den.

Azkenik, Ateratze Arrantzan Higiene Programak abiarazi dira, eta hori baliagarri izango da hobekuntza-jarduerak atzemateko eta Elikagaien Segurtasunaren esparruan aurrera egiten jarraitzeko.

DOCUMENTACIÓN DE REFERENCIA

- [EAE-ko Arrantzarako Plan Estrategikoa 2009-2013](#)
- [Arrantza sektorearen Plan Estrategikoaren programen bitartez lortutako emaitzak](#)
- [Laneko Arriskuak Prebenitzeko Arrantza Sektorerako Plan Integrala 2008-2011](#)
- [TRIPTIKOA: Higiene Baldintzak itsasontzietan](#)
- [La higiene en los barcos de pesca. Sustrai, 97.](#)



Arrantza sektorean
Elikagaien
Segurtasunari buruzko
informazio gehiago
kontsultatu nahi duzu?

http://www.elika.net/eu/pesca_home.asp